

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO PROGRAMA.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, 2011. urtean giza eskubideen defendatzaileentzako programa martxan jarri zuten.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea ez da legezko betebeharrat, ez nazioarteko zuzenbidean ez Espainiako zuzenbidean, baina nazioarteko zuzenbidearen esparruan biziki gomendatuta dago eta lege-esparrua dauka Europa- eta Espainia-mailan.¹⁻²⁻³

Eusko Jaurlaritzak, giza eskubideei eta nazioarteko elkartasunari begira hartu duen konpromisotik abiatuta, bere jarduera nazioarteko esparrura bideratu du programa honekin.

1. Helburu nagusia

Oso mehatxatuta dauden giza eskubideen defendatzaileak babestea, aldi batez babesa emateko programa baten bitartez.

1.1. Helburu espezifikoak

1. Giza eskubideen defendatzaileei laguntza psikosoziala ematea.
2. Programan sartutako pertsonen elkartzeko-erakundeentzat “babes eta/edo alerta” gisa balio dezaketen kontaktu instituzionalen, gizarte-erakundearen eta ekitaldien agenda antolatzea.
3. Herrialdearen gizarte-erakundearen indartzea, programan parte hartzen duten defendatzaileen “gaikuntza eta/edo boluntariotzaren” bitartez.

2. Lehentasuneko kolektiboak

Giza Eskubideen defendatzaileak aldi batez Babesteko Programa honen onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte: espainiarraz besteko nazionalitatea duten pertsona fisikoak izatea, erakunde sozialekin harremana izatea eta beren jatorrizko herrialdean giza eskubideak defendatzeagatik mehatxuak edo jazarpena jasatea. Mehatxatutzat joko dira giza eskubideak defendatzen jarduteagatik beren segurtasun fisikoaren eta/edo beren senitartekoen segurtasun fisikoaren kontra arrisku zehatz eta funtsezkoa jasaten dutenak. Mehatxua, estatuaren organoek eragin dezakete, edo

¹ Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/161 Ebazpena (2. eranskina).

² Europar Batasunaren 2004ko ekainaren 14ko zuzentarauak.

³ 1257/2007 Errege Dekretua: giza eskubideen defendatzaileak bizi diren herrialdeetatik ateratzen laguntzeko ekintza humanitarioak egitea da laguntza hauen helburua (1.2 artikulua).

erakunde paragubernamentalek, matxinatuek edo gizabanakoek ere, estatuak ezin duenean babesik eskaini, edo ez duenean eskaini nahi, edo ez duenean horretarako gaitasunik. Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen defendatzaileen egoeraren berri emateko izendatutako ordezkariak zehaztutako kolektiboek emango zaie lehentasuna.

Ezin dira izan programa honen onuradun:

-Gaur egun Nazio Batuetako organismo edo organo baten babesa edo laguntza jasotzen ari diren pertsonak, edo giza eskubideen defendatzaileak babesteko beste edozein programaren babesa edo laguntza jasotzen ari direnak.

-Bizitokia herrialde batean hartzen duten pertsonak, herrialde horretarako agintari eskudunek herrialde horretarako herritartasunari dagozkion eskubideak aitortzen dituztenean.

-Europar Batasuneko herrialde kideetako bateko herritartasuna duten pertsonak.

-Honako pertsona hauek, baldin eta arrazoi funtsatuak badaude pentsatzeko ezen:

a) Bakearen kontrako delituren bat, gerra-delituren bat edo gizateriaren kontrako delituren bat egin dutela

b) Herrialde batean errefuxiatu baino lehen edo errefuxiatu gisa onartua izan baino lehen, herrialde horretatik kanpo delitu arrunt larria egin dutela.

c) Nazio Batuen xede eta printzipioen kontrako egintzen errudun bihurtu direla.

3. Hautagaiak aukeratzea

3.1. Hautagaiak ondo aukeratzearen garrantzia

Kolektibo hauei emango zaie lehentasuna:

a) Erdi mailako jazarpena jasaten ari diren erakundeekin lotura duten eta laguntzarako nazioarteko sarerik ez izateagatik erasotzen errazagoak diren giza eskubideen defendatzaileen proposamenak baloratuko dira.

b) Erakunde feministek edo emakumeen erakundeek egindako proposamenak baloratuko dira, gizartean isla txikiagoa izaten dutelako eta tokian-tokiko eta nazioarteko ezagutza txikiagoa izaten dutelako.

c) Eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenari dagozkionak defendatzeko lan egiten dutenen proposamenak baloratuko dira, bai eta gutxiengoan, indigenen, afrikarren ondorengoan eta LGTB taldeen eskubideen alde lan egiten dutenek egindako proposamenak ere, erasotzen errazagoak direlako eta gizartean izaten duten isla txikiagoa delako.

Hautaketa egiteko, alderdi horiek guztiak hartu beharko dira kontuan, hautatutako pertsonaren profila eta mehatxupean egon, herrialdetik aldi baterako atera eta nolabaiteko babes-mailarekin bueltatzen den pertsonaren profila bat datozela bermatzeko.

3.2. Hautaketa Batzordea

Honako hauez osatuta egongo da Hautaketa Batzordea:

Lehendakaria:

-Justizia eta Herria Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzako zuzendaria

Batzorkideak:

- Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendaria
- Kanpo Harremanetarako zuzendaria
- Immigrazioko zuzendaria
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaria.
- “Pedro Arrupe” Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaria.
- Ellacuria Gizarte Guneko zuzendaria, edo haren eskuordea.
- Hegoa Institutuko zuzendaria edo haren eskuordea.
- Euskadiko GGKEen koordinakundeko presidentea, edo haren eskudeordea.
- Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren elkartearen foroko presidentea, edo haren eskuordea.
- Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeko (CEAR-Euskadi) zuzendaria, edo haren eskuordea.

Hautagaien aukeraketa alderdi guztien bat etortzearekin egingo da. Hautagaitza-fitxak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzan jasoko dira eta zuzendaritza hori arduratuko da fitxa horiek Hautaketa Batzordeari bidaltzeaz, hark bere lana egin dezan.

Hautaketa-prozesua bukatu ondoren, defendatzaileak hartu aurreko prozedura aktibatuko du Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioko Giza Eskubideen Bulegoan egin beharreko izapideak eginez, dagozkion bisatuak lortzeko.

4. Programaren funtzionamendua

4.1. Laguntza psikosoziala

Hainbat eta hainbat profiletako pertsoneri laguntzen zaie, baina bakoitzak bere herrialdean jasandako egoerak eragindako trauma-ondoko estresa, testuinguru soziokultural berri batean moldatu beharra eta gizarte-sarerik eza direla-eta, laguntza psikosoziala eman behar izaten zaie, egoera horietan ohikoa izaten

baita tristura, malenkonia edo depresioarekin egotea. Eman beharreko laguntza psikosozialak pertsona babestuak bildu behar ditu, haien gertukoa izan behar du eta haien gizarte-ehuna irudikatu behar du.

Laguntza psikosoziala aldi bateko erbestealdi-prozesuko pairamen eta/edo zailtasunen antidotoa izaten da. Aldi berean, beste hainbat alderdi landu behar dira egunez egun: familiarekiko urrunketa, herrialdetik ateratzeak eragindako erruduntasun- eta ezintasun-sentimendua, giza eskubideen urraketaren egoera, norbere burua bueltarako prestatzea, programan erabil dezaketen profila, aukeratutako profilaren ondorioak, etab. Laguntza psikosoziala lantzeko, honako hauek proposatzen ditugu:

- Babestutako pertsonen arteko asteroko talde-lana. Denontzat komunak diren sentimendu eta/edo egoerak lantzeko gai izan behar dute eta, batez ere, komunean dutena landu behar dute, herrialde desberdinetakoak direla eta ideologia eta jarrera desberdinak dituztela kontuan hartu gabe. Estrategia hori erabili behar dute lankidetzara eta espazio publikoen partekatzea errazagoa izan dadin.
- Banan-banako lana. Elkarriketak egingo dira, babestutako pertsonak izaten dituzten sentimenduak bildu, legitimatu eta irauli eta ahal den neurrian bizi-kalitatea hobetzeko, programan dauden bitartean.

Alderdi horiek lantzeko, konfiantza- eta laguntza-harreman bat sortu behar da. Ezinbestekoa da lan hori erakunde babes-emaileak egitea baina, behar izanez gero, kasuak zerbitzu psikologiko espezializatuetara desbidera daitezke.

4.2. Urtean babestu beharreko defendatzaile-kopurua

Urtero giza eskubideen hiru defendatzaile ematea aldi baterako babesa aurreikusten da.

4.3. Babes-aldia

Giza eskubideen defendatzaileen egonaldia 6 hilabetekoa izango da, profil baxua dutelarik berme guztiakin bueltatu ahal izan daitezen, beraien erakundeetan integratzeko eta egin dituzten kontaktuak, lortu duten informazioa, etab. bueltan eraman ahal izateko.

4.4. Funtzionamendu-arauak

Programan sartzen diren pertsonak pertsona heldu eta arduratsuak diren arren, ezinbestekoa da programaren funtzionamendurako akordioa/kontratua egin eta babesa jasoko duen defendatzaileak onartu eta sinatzea. Agiri horretan, programan sartzen den guztia, hautatua izanez gero hartu behar diren konpromisoak eta pisuan bizitzeko gutxieneko funtzionamendu-arauak azalduko dira; egonaldiaren mapa, alegia. Esan bezala, programaren edukiak, funtzionamendu-arauak eta bizikidetzara-erakundeak zehaztuko dira.

Gutxienez hau guztia zehaztuko da:

- Babes-aldia: 6 hilabete.

- Jatorrizko herrialderako itzulera.
- Funtzionamendu-arauak: prestakuntza eta agendari buruzko akordioak ezarriko dira eta erakundeekin lankidetzan aritzeko konpromisoak hartuko dira.
- Bizikidetzaren arauak.
- Programan baja emateko, programa bukatzeko edo programatik botatzeko arrazoiak.

4.5. Gauzatu beharreko jarduerak

Hemen deskribatutako jarduerak, defendatzaileak programara adi babetarako babes hartzera iristen direnean egitekoak dira.

Programan ezarritako helburu espezifikoetan oinarritzen dira. Hona hemen jarduerak horiek:

1/Laguntza psikosozialeko jarduerak: – Erroldatzea – Osasun-laguntzarako txartela – arrazoi bereziengatik bizileku-baimenerako izapidea – pisuak bisitatzea, defendatzaileekin aldizkako bilerak egitea (bakarka nahiz taldeka) – zerbitzu publikoen funtzionamendua: osasuna, garraioa, posta... – Prozesu psikologikorako laguntza – itzulera lantzea – bizikidetzaren lantzea – jai garrantzitsuak defendatzaileekin ospatzea eta aisialdia kudeatzeko aisialdi-jarduerak eta gida-lerroak aurreikustea.

2/Agenda (jatorrizko herrialdera itzultzean antena eta segurtasun gisa balio behar du)

- Bilerak erakundeekin: egonaldi-mapan ezarritako lehentasun-irizpideei jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen defentsa eta sustapenaren alde lan egiten duten sareak behar bezain ongi ezagutzea da bilera hauen helburua.
- Bilera instituzionalak: ordezkari politikoekin batera bisita instituzional bat egitea proposatzen da eta, gero, babestutako pertsonaren esparruan lan egiten duten teknikariek eta egokitutako beste pertsonekin bisita instituzionalak egitea.
- Ekitaldi publikoak: babestutako pertsona bakoitzarentzat hitzartzen den publizitatearen araberakoak izango dira (parte-hartzaile aktiboak edo ikusleak izan daitezke).
- Erakundeentzako laguntza: defendatzaileek aukera izango dute mikroproiektuetan inplikaturako erakundeetan boluntario gisa laguntzeko.

3/Prestakuntza: - Hizkuntza ikastea (euskara edo gaztelania), “bozgorailu” izateko eta gatazka eta giza eskubideen defentsa sozializatzeko. - Ingurua ezagutzea. - Beharrezkotzat jotzen denean, giza eskubideen defentsa eta sustapenaren arloko prestakuntza ematea, erakunde akademikoekin eta prestakuntza-zentro espezializatuekin koordinazioan.

4/Argitalpena: - Babestutako defendatzaileen bizitzaren historiari buruzko urteroko liburua (beraiek idatzia).

4.6. Profil publikoaren definizioa

Pertsona babestuak iristen direnean egin behar izaten den lehendabiziko gauzetako bat agendan erabili nahiko duten profil publikoa finkatzea da. Profil hori pertsona babestuen interesen arabera aldatu ahal izango da. Hainbat profil publiko daude: agerian ibiltzea, ezizena edo/eta bataio-izena erabiltzea, edo irudietan ez agertzea. Segurtasun-neurri hauek defendatzailea babesteko eta bere itzulera ez zailtzeko pentsatuta daude. Pertsonak berak erabakiko du zein profil erabili nahi duen, profil bat edo beste erabiltzeak dauzkan ondorioak kontuan hartuz.

4.7. Prestakuntza / Gizarte-laneko boluntarioria

Hizkuntza ikasi eta ingurua ezagutzearekin batera, defendatzailearen erakundeak edo/eta gizarte-mugimenduak aprobetxatzeko moduko prestakuntza espezializatuagoa ematea proposatzen da. Prestakuntza hori erakundearekin itunduko da, haren interesak eta ahalmenak kontuan hartuz. Hainbat motatako prestakuntza izan daiteke: Europako Erkidegoan dirulaguntzak eskatzen ikastekoa, giza eskubideei buruzko prestakuntza espezializatua, prestakuntza teknikoa, etab. Garrantzitsua da defendatzaileak, bere borondatez, Euskal Autonomia Erkidegoko giza eskubideen aldeko erakunderen bateko proiektu edo/eta kanpainetan laguntzea.

Prestakuntza eta gizarte-laneko boluntarioria funtsezkoak dira, horrela egonaldia eta babes-aldia aprobetxatzen baitira eta hori gero norberaren komunitatean erabili baitaiteke.

4.8. Beharrezko azpiegitura

Programaren bidez, giza eskubideen 3 defendatzaileari sei hilabeteko aldi baterako babes-aldia emango zaie pisu batean. Programak ordainduko ditu alokairu, horniketa, altzari eta tresna, mantenu-laguntza, botika eta garraioko gastuak.

4.9. Programatik ateratzea

Itzulera bermatzeko, pertsona babestuek beraien herrialdera bueltatu ondorengo lehenengo hiru hilabeteetan babes-programaren barruan egoten jarraituko dute, berriz ere jaioterrian (edo segurtasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen bada beste lekuren batean) kokatzen lagunduko dien. Horrela, beraien erakunde/gizarte-mugimenduan berriz integratu ahal izango dira, aldi horretan behintzat profil baxua dutelarik, egonaldian zehar bereganatzen dituzten ezagupenak eta kontaktuak erakundera eraman eta erakundea indartzeko.

Proposamen honen arabera, programan ezin da 6 hilabete baino gehiago egon babestuta. Hala ere, salbuespen gisa, mehatxua programan sartzerakoan zen adinakoa edo handiagoa bada, itzuleraren ordean beste irtenbideren bat pentsa liteke.